



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Portugaletako Udala

Portugaletako gazte elkarteetarako urteroko dirulaguntzen oinarri arautzaileen hasierako onespena.

Udalbatzak, 2023ko otsailaren 28an egindako ohiko bilkuran, honako hau erabaki zuen, besteak beste:

Lehenengoa: Hasierako onspena ematea Portugaletako gazte elkarteetarako urteroko dirulaguntzak emateko arauak, I. eranskinean xedatutakoaren arabera.

Bigarrena: Arauak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera, jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea, 30 egun balioduneko epean, hasierako onarpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta. Espedientea udalaren bulegoetan kontsulta daiteke, interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak egiteko modua izan dezaten. Eginez gero, Korporazioak ebatziko ditu. Gainera, arauen testu osoa udalaren webgunean argitaratuko da. Alegaziorik egiten ez bada, arauak behin betiko onartutzat joko dira, behin aipatutako epea igarota.

Ondoren, hasierako onarpena emandako arauen testu osoa argitaratzen da.

Portugaleten, 2023ko martxoaren 6an.—Alkatea, Mikel Torres Lorenzo



ERANSKINA

**PORTUGALETEKO GAZTE-ELKARTEENTZAKO
URTEKO DIRULAGUNTZEN ARAUTEGIA****1. artikulua. — Xedea**

Araudi honen xedea da gazte-elkarteei urteko programaren garapenerako laguntza ekonomikoak ematea eta sarbidea arautzea. Izan ere, gazte-elkarte horiek euren estatutuetan aisialdia sustatzea eta haurren nahiz nerabeen izpiritu kritikoa, sortzailea eta gizarte-eraldatzailea, hain zuzen ere, besteak beste, bultzatu behar dituzte.

Aipatutako dirulaguntzen emakida hainbanaketa erregimen bereziaren arabera egingo da.

2. artikulua. — Entitate onuradunak

Araudi honek arautzen dituen diru-laguntzak eskuratu ahal izango dituzte urte osoan aisialdi eta astialdiaren esparruan lan egiten duten eta honako baldintzak betetzen dituzten elkarteek:

- a) Kokapena, jarduketa-eremua eta egoitza Portugaleten izatea.
- b) Legalki eratuta egotea edo baldintza hori betetzen duen entitate baten mende egotea, era berean entitate horrek dagokion IFK eduki beharko du.
- c) Urte osoan haur eta nerabeentzako jarduerak antolatzea.
- d) Estatutuek beren beregi jaso beharko dute haur eta gazteen alorrean garatzeko xedea dutela.
- e) Irabazi asmorik gabeko erakunde moduan eratuak izatea.
- f) Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistemaren Aldaketari buruzko 2015eko uztailaren 28ko 26/2015 Legearen 13. artikulua dakarrena betetzea.
- g) Administrazio, antolakuntza eta kontabilitate sistema erantzulea, gardena eta ezaguterraza izatea.
- h) Betebehar fiskalak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea eta horiek beraiek idatziz egiaztatzea.

3. artikulua. — Eskaerak aurkezteko epeak

- Eskaerak Portugaleteko Udaletxeko Erregistro Orokorrean (Solar plaza z. g.), astelehenetik ostiralera 8:00etatik 14:00etara edo Herriarren Arretarako Informazio Bulegoan (San Roke plaza z.g.), astelehenetik ostiralera 14:30etik 20:15era eta larunbatetan 9:00etatik 13:45era. Honako oinarri zehatzetako l. eranskinean agertzen den eskabide-orria dagokion moduan bete beharko dute.
- Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita zenbatu beharreko hilabetekoa izango da.
- Diru-laguntza izapidetzeko eranskinak eta agiriak honako webguneetan daude eskuragarri: www.portugalete.org eta www.juventudportugalete.org
- Eskaeren aurkezpenean Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 38.4 atalak aurreikusten dituen edozein lekutan egin daiteke.
- Aipatutako epeetatik kanpo aurkeztu diren eskaerak gaitzetsiko dira eta izapidetu barik artxibatuko dira.

4. artikulua. — Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Elkarteko presidentearen NANaren fotokopia.
- Entitate eskatzaileak aurreko ikasturtean irailaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean eginiko jardueren gaineko memoria (egitaraua, xedeak, metodologia, balioespena, nori zuzenduta dagoen eta parte-hartzaile kopurua) (2. eranskina).



- Ikasturteko balantze ekonomikoa, diru-sarrera eta gastuen arteko erlazioa. Horretaz gain, gastuen taula bat non fakturaren data eta zenbakia, hartzekodunaren IFZa, kontzeptua eta zenbatekoa zehazten baitira. Denboraldi horretan eginiko gastuen egiaztagirien fotokopia zenbakidunak aurkeztu beharko dituzte (3. eranskina).
- Ikasturte honetako jardueren egitasmoa, irailaren 1etik abuztuaren 31ra bitartekoa (4. eranskina).
- Ikasturte honetako aurrekontua, irailaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean (5. eranskina).
- Elkarteko idazkariaren ziurtagiri bat. Idazki horretan bazkide kopurua eta aurreko ikasturteko urteko kuotaren zenbatekoa agertu beharko da (6. eranskina).
- Begiraleen erantzukizunaren pean egindako ikastaroen zerrenda (egitarauen fotokopiak, fakturak eta dagokion titulua edo ziurtagiria) baldin eta aurreko ikasturteko irailaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean eginak badira (7. eranskina).
- Bizkaiko Foru-Ogasunaren egiaztagiria ziurtatzeko eskatzaileak bere tributu fiskalak egunean dituela. Portugaleteko Udalarekiko tributu betebeharrak bakarrik duten elkarrekin eskabidean berariazko aitortzea aurkeztu beharko dute, ofizioz ziurtagiria eman behar duena Udala delarik.
- Zinpeko aitortzea egiaztatzeko elkarrekin ez dutela zigortu administratiboki edo zigor-kodean, horrela izanez gero, diru-laguntza publikoa jasotzeko aukera galduko bailuke. Halaber, bere jarduna debekatzen duen legezko agindupean ere ezin da egon otsailaren 18ko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko 4/2005eko Legeari jarraiki, sexu-diskriminazioagatik (8. eranskina).
- Zinpeko aitortzea, haxe aitortzen duena: hala begirale guztiek nola beste motatako langileek Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistemaren Aldaketari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legearen 13. artikulua dakarrena betetzen dutela (11. eranskina).
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra emandako ziurtagiria, berarekiko betebeharrak eguneratuta dituela egiaztatzeko.
- Udalaren Hezkuntza eta Gazteria Sailak agiriok ez baditu edo aldaketarik badago, aurkeztu ere egin beharko dira. Bestela, aldez aurretik auzeratu direlako zinpeko aitortzea bete beharko da (10. eranskina):
 - Estatutuen fotokopia.
 - Eusko Jaurlaritzako Elkarrekin Erregistroko inskripzioaren fotokopia.
 - Elkarrekin Identifikazio Fiskaleko Txartelaren fotokopia.
 - Hartzekodun fitxa zeinetan elkarrekin eskatzailearen banku-datuak eta helbideratzea eguneratuta agertuko baitira (9. eranskina).

Udalak, kasu bakoitzari dagokionez, eskatzaileari egoki deritzon beste dokumentazio osagarria eskatu ahal dio aurkeztutako proiektua baloratzeko.

Izaera Pertsonaleko Datu Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa bete nahian, entitate eskatzaileei jakinarazten zaie eskaerarekin batera aurkeztutako datuak honako oinarriek arautzen duten deialdiko dirulaguntzaren esleipenerako erabili ahal izango direla eta gauza bera Hezkuntza eta Gazteria Saileko beste jardueretan.

5. artikulua. — Eskaerak baztertzea

Deialdi honetako aplikazio eremutik kanpo geratuko dira hurrengo jarduerak:

- a) Ezin izango dira onuradunak izan azaroaren 17ko 38/2003 Orotariko Legeko 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan aurreikusten diren baldintzen bat betetzen dituzten elkarrekin.
- b) Gazte-elkartasuna, aisialdia eta astialdiaren sustapena bultzatzeko xedearekin bat ez datozenak.
- c) Berezko deialdian diru-laguntza jaso duten udaleku eta udako kanpalekuak.



- d) Elkarte edo entitateen proposamenak, 14. artikuluko eskubide konstituzionalak, (jaiotze, arraza, sexu, erlijio, iritzi... bereizketa), urratzen badituzte.

Ez dira kontuan hartuko argibide-memoriaren aurkezpena edo Portugaleteko Udalak aurretik emandako dirulaguntzen ziurtagiria aurkeztu barik duten entitate eskatzaileen eskaerak.

6. artikulua. — *Eskaera amaitugabeak edo akasdunak*

Eskaerak edo harekin batera datozen agiriekin amaitu gabeak edo konpon daitekeen akatsen bat badaukate, eskatzaileari eskatuko zaio akats horiek zuzentzea, gehienez 10 eguneko epean jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Zuzenketa egin ezean eskaera gaitzetsiko da.

7. artikulua. — *Dirulaguntzaren zenbatekoa: hainbanaketa*

Udaleku eta kanpalekuak finantzatzeko dirulaguntzak honako eran kuantifikatuko dira:

1. Kantitate finko baten esleipenaren bitartez, 200 € elkarte antolatzaile bakoitzari.
2. Kantitate finko baten esleipenaren bitartez, 1,5 € aurreko ikasturteko parte-hartzaile iraunkor bakoitzeko. Kuantifikazio horretatik at geratuko dira begiraleak eta beste motatako langileak.
3. Aurreko ikasturteko irailaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean, begiraleen prestakuntza dela eta, eratorritako gastuen % 30.
4. Aurreko ikasturteko irailaren 1etik abuztuaren 31ra bitarteko gastuen fakturak araztu ondoren sortutako gastuen ehunekoa. Aipatutako ehunekoa horrela kalkulatu da:
 - a) Artikuluan zehaztutako aurrekontu mugari kenduko zaizkio aurreko kontzeptuak direla eta onartutako eskaera guztiei emandako zenbatekoak.
 - b) Onartutako entitate eskatzaileen fakturak araztu ondoren sortu diren gastuak gehituko dira.
 - c) b) ataleko emaitzaren arabera a) ataleko emaitzako kopuruak suposatzen duen ehunekoa kalkulatu da.

8. artikulua. — *Izapidetzea eta ebazpena*

Izapidetza

- Dirulaguntza emateko proposamena kide anitzeko organo batek egingo dio organo emaileari, instrukzio-organismoaren bitartez.
- Azken hori Portugaleteko Udaleko Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Arloa izango da.
- Portugaleteko Udaleko Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Arloari dagokio instrukzio-organoa den aldetik, aurkeztutako eskabideak aztertzea eta ebaluatzea. Izan ere, haiek egoki ulertzeko eta ebaluatzeko bidekoesten duen behar beste agiri edota informazio eskatu ahal du.
- Espedientearen instrukzio-organismoak ofizios egingo du datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko egoki bidezkoesten dituen izapideak. Alta, datuon arabera emango da ebazpen-proposamena.
- Behin eskaera onartuta, espedienteari hasiera emango zaio dirulaguntzaren izapideak egite aldera.
- Onartutako eskaera aztertu eta ebaluatu ondoren, instrukzio-organismoak dagokion txostena eta ebazpen-proposamena egingo ditu, eta organo emaileari helaraziko dizkio, eskatutako dirulaguntza eman edo ukatu den berariaz adierazita, zenbatekoa den adierazita.
- Kide anitzeko organismoak, deialdia arautzen duten oinarriak eta instrukzio-organismoaren ebazpen-proposamena aztertu ondoren, eskabideak ebaluatuko ditu eta
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 27ko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikuluan aipatzen den nahitaezko txostena egingo du.



Kide anitzeko organoaren kideak ondoko hauek izango dira:

- Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Zuzendaritza, presidente gisara.
- Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza, presidentearen ordezkari gisara.
- Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Arloko administraria, idazkari gisara.
- Parte-Hartze eta Gizarte Berrikuntza teknikaria, idazkariaren ordezkari gisara.
- Kultura Arloko teknikaria, kide gisara.
- Euskara Arloko teknikaria, kide gisara.

Kide anitzeko organoa balio osoz eratuko da Presidentetzan eta Idazkaritzan dagoen pertsonarekin edota kideen erdiekin.

Ebazpena

- Ebazteko organo eskuduna Alkatetza izango da. Eskaerak erregistro-ordena zorrozean ebatziko dira, espedienteko dokumentazioa osatuta dagoen unearen arabera, horretarako bideratutako partida ekonomikoan dagoen aurrekontu-kreditua agortu arte.
- Hartzen den ebazpenean zehaztuko da eskatutako dirulaguntza eman den edo, hala badagokio, ukatu den, eta, hala badagokio, onuradunaren izen soziala eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa adieraziko dira. Bigarrenen kasuan, sozietatearen izena eta ukatzeko arrazoiak jasoko ditu. Dirulaguntza emateko ebazpena eskatzaileei banan-banan jakinarazteaz gain, Portugaletako Udaleko Gardentasunaren Atarian argitaratuko dira erakunde onuradunen zerrenda eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55.h) artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Prozedura dagokion deialdian ezarritako eguna baino lehen ebatzi eta jakinaraziko da. Epe hori igaro eta ebazpen espresua jakinarazi ez bada, erakunde eskatzaileak ulertu beharko du bere eskaera ezetsi egin dela administrazio-isiltasunez, hargatik eragotzi gabe geroago berariaz ebaztea.

9. artikulua. — Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa era

- Diru kopurua altxadi eran erabakiko da eskatzaile bakoitzaren kasuan, araudi honetan zehazten den 8. artikuluekin bat etorritik eta ez du inoiz kreditu erabilgarria edo aurreko ikasturteko irailaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean aurreikusitako gastuaren %60 gailenduko.
- Aipatutako dirulaguntzak beste entitate publiko edo pribatuak emandako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo errekursoekin bateragarriak izan ahal dira, inolaz ere gainfinantzaketa eman daitekeelarik, hau da, beste erakundeekin batera emandako dirulaguntzaren zenbateko totalak ezin izango du jardueraren kostu totala gailendu.
- Dirulaguntzen aldiberekotasuna dela eta gainfinantzaketa ematen bada, onuradunak Portugaletako Udalak emandako zenbatekoa itzuli beharko du, beti ere Udalak, finantziatutako totalaren zenbatekoari emandako kopuruaren arabera.
- Diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diotenak, baldin eta behar-beharrezkoa bada, eta haien kostua ezin izango da inolaz ere merkatuaren balioa baino handiagoa izan.
- Egindako gastutzat joko da justifikatzeko aldia amaitu baino lehenago dagoeneko ordainduta dagoena. Hori dela eta, ez dira onartuko argi eta garbi proiektuaren gastua identifikatzen ez den ordainagiririk.
- Gehienez ordaindu beharreko zenbatekoa, eskudirutan, 300 eurokoa izango da.
- Ordaintzeko erak:
Ordainketa transferentziaz edo banketxe-helbideratzearen bitartez. Ordainketa egiaztatzeko agiri hauetariko bat aurkeztu beharko da: banketxearen transferentziaren agindua frogagiria edo eginiko helbideratzearen jakinarazpena.
Eskudirutan ordaintzea.



- Salbuespen gisa, eta gastuen zenbateko txikia dela eta, faktura osoen bidez justifikatzea zaila bada, faktura sinplifikatuekin (tiketa) ordeztu ahal izango dira, entitatearen ziurtagiri batekin batera, gastu horiek entitateak emandako dirulaguntza-ren kargura egin dituela adieraziz, eta horien jatorria eta dagozkien kontzeptuak zehaztuz.
- Fakturazio-erregelamenduak esaten dion bezala, «Kutxako tiketa» edo «faktura sinplifikatua» k «eskudirua» adierazpena eta eragiketa-data izan behar ditu, eta horrek egiaztatuko du ordainketa justifikazio-epearen barruan egin den ala ez.

10. artikulua. — Onuradunaren betebeharrak

Entitate jasotzaileak deialdi honetako xedapenak bete beharko ditu.

Zehaski, entitate eskatzaileari gogorarazten zaio, diru-laguntza jasotzekotan, promozio elementuak, kartelak edo diru-laguntza jaso duen jarduerako testu edo dokumentuak EAEko bi hizkuntza ofizialetan argitaratu eta Portugaleteko Udalaren babesa aipatu behar duela, hori guztia kartelak jartzeko udal araudiarekin bat etorritik.

11. artikulua. — Finantzaketa

Deialdi hau betetzeko xedearekin, finantzaketa 11.000 (hamaika mila) euroko gehieneko aurrekontu kredituari kargatuko zaio, era berean, 07 3342 481.01 aurrekontuko partidari kargatuko zaiolarik.

Aipatutako dirulaguntzak beste entitate publiko edo pribatuetatik eratorritako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo errekurtsuekin bateragarriak izan ahal dira, inolaz ere gainfinantzaketa eman daitekeelarik.

Dirulaguntzen aldebereketasuna dela eta gainfinantzaketa ematen bada, onuradunak Portugaleteko Udalak emandako zenbatekoa itzuli beharko du, beti ere Udalak, finantziatutako totalaren zenbatekoari emandako kopuruaren arabera.

12. artikulua. — Dirulaguntzaren itzulera

Jasotako dirulaguntza itzuliko dio Udal-kutxari dagokien atzerapen interesekin (diru-laguntza eman eta itzuleraren jatorria onesten den arte), honako baldintzaren bat betetzen bada:

- Jasotako zenbatekoa ez bideratzea eskatu zen xedearen garapenerako.
- Dirulaguntza jasotzea beharrezkoak diren baldintzak bete barik.
- Deiladi hau aplikatzean onuradunak bere gain hartu beharreko betebeharrak ez betetzea.
- Dirulaguntzen aldebereketasuna dela eta gainfinantzaketa ematen bada, onuradunak Portugaleteko Udalak emandako zenbatekoa itzuli beharko du, beti ere Udalak finantziatutako totalaren zenbatekoari emandakoaren arabera.

Itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, osorik edo partzialki, proportzionaltasun eta ekitate hastapenak kontuan hartuko dira, horretarako kasu bakoitzeko baldintzak kontuan hartuko direlarik.

Itzulketa eskatzen duen ebazpena diru-laguntza eman zuen organoak berak emango du.

Itzulketa espediente, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko VI. Tituluarekin bat etorriko da, era berean, interesatuari harrera tramitea emango zaio 15 laneguneko epean.

13. artikulua. — Zehatzeko araubidea

Arau-hauste eta zehapen erregimena, azaroaren 17ko 38/2003 Orotariko Legeko IV. Tituluarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/98 Legearekin bat etorriko da.

14. artikulua. — Xedapen gehigarria

Araudi hau, Dirulaguntzen Datutegi Nazionalen argitaratzeaz gain, bai udal iragar-ki-taulan bai www.portugalete.org webgunean egongo da ikusgai.

**UDALARI URTEKO DIRU-LAGUNTZA ESKATZEKO ESKABIDE-ORRIA****AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:**

- ☐ Eskabide-orria (I. eranskina).
- ☐ Eskabidea aurkezten duen elkartearen ordezkariaren NAN-aren fotokopia.
- ☐ Aurreko ikasturtean egindako jardueren gaineko memoria argitzailea (II. eranskina).
- ☐ Aurreko ikasturteko balantze ekonomikoa eta fakturak justifikatzeko kopien zerrenda eta fotokopiak (III. eranskina).
- ☐ Ikasturte honetarako proiektua (IV. eranskina).
- ☐ Ikasturte honetarako aurrekontua (V. eranskina).
- ☐ Bazkide kopuruaren ziurtagiria eta aurreko ikasturteko bazkide-kuota (VI. eranskina).
- ☐ Aurreko urtean begiraleek egindako ikastaroak (VII. eranskina).
- ☐ Foru-Ogasunaren Ziurtagiria.
- ☐ Elkartea zigortuta ez dagoelako zinpeko aitortpena (VIII. eranskina).
- ☐ Zinpeko aitortpena: hala begirale guztiek nola beste motatako langileek haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistemaren Aldaketari buruzko 2015eko uztailaren 28ko 26/2015 legearen 13. artikulua dakarrena betetzen dutelakoa (11. eranskina).
- ☐ Gizarte Segurantzaren Diruzaintzaren ziurtagiria.
- ☐ Hartzekodun fitxa bankuaren datuekin (ix. eranskina).
- ☐ Eusko Jaurlaritzako Elkartearen erregistroan inskribaturik dagoelako egiaztagiria.
- ☐ Elkartearen estatutuen fotokopia.



I. ERANSKINA

GAZTE-TALDEEK URTEKO DIRU-LAGUNTZA JASOTZEKO ESKABIDE-ORRIA**Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Sailari zuzenduta**

IFK
Entitatearen izena
Egoitza eta telefonoa:
Udalerrria eta probintzia
Talde edo elkarte honen ordezkaritzan diharduen jauna/andrea
Kargua

Portugaleteko Udalari eskatzen dio udalerriko gazte-elkarteentzako diru-laguntzak emateko arau-
diak zehazten dituen urteko diru-laguntza bat ematea, eta hitzematzen du 2016ko Gazte-elkarteen
Urteko Diru-laguntzaren Araudian, zehaztutako epeetan, eskatutako agiri guztiak aurkeztuko dituela.

Portugalete,

(zigilua eta sinadura)

**PARTE-HARTZAILE FINKOAK AURREKO IKASTURTEKO
IRAILETIK ABUZTURA BITARTEAN**

Adina	Mutilak	Neskak	Orotara
OROTARA			

Aurreko ikasturteko irailetik abuztura bitartean taldetik igarotako haur-gazte kopurua: ☐Begirale kopurua: G: ☐ E: ☐**ELKARTEAN SARTZEKO ORDUTEGIA ETA EGUNAK**

Ordutegia		
Egunak		

**AURREKO IKASTURTEKO IRAILAREN 1ETIK ABUZTUAREN
31RA BITARTEAN JASOTAKO DIRU-LAGUNTZA EKONOMIKOAK**

Diru-laguntza mota	Zenbatekoa	Erakundea

**2. ERANSKINA****AURREKO IKASTURTEKO IRAILAREN 1ETIK ABUZTUAREN 31RA
BITARTEAN EGINDAKO JARDUEREN OROIT-IDAZKIA**

- Taldearen helburu orokorren ebaluazioa urtean zehar
- Adin-talde bakoitzarentzat
 - Azaldu urteko programa, alderdirik aipagarrienak eta gorabeherak.
 - Egin helburuen ebaluazioa.

Eranskin hau proposamena besterik ez da. Honi jarrai dakioke ala ez.



3. ERANSKINA

AURREKO IKASTURTEKO IRAILETIK ABUZTURA BITARTEKO BALANTZE EKONOMIKOA**Diru-sarrerak**

	Euro
Entitatearen ekarpena	
Parte-hartzaileen kuotak	
Begiraleen kuotak	
Udalaren diru-laguntza	
Beste batzuk (zehaztu)	
OROTARA	

Gastuak

	Euro
Lokala mantentzeko gastuak (argia, alokairua, etab)	
Lokalean lanak egiteko gastuak	
Ekipamendurako gastuak (altzariak, ordenagailuak, erredizak, ikusentzunezkoak)	
Telefonia	
Aseguruak	
Formakuntza	
Kuotak eta harpidetzak	
Jarduerak (garraiobideak, materiala, aterpeak...)	
Beste batzuk	
OROTARA	

DIRU-SARRERA ETA GASTUEN ARTEKO ALDEA

ERANTSI BEHAR DIRA FAKTURA ZENBAKIDUNAK ETA HAUEN FOTOKOPIAK

Zk.	Faktura- zenbakia	Fakturaren data	Hartzekoduna	IFZ	Kontzeptua	Zenbatekoa eurotan

Oharra: balantze honetatik kanpo geratuko dira bestelako diru-laguntzak jaso dituzten aurreko urteko udako kanpaldiek sortutako diru sarrera eta gastuak. Gastuak bidezkotu beharko dira aurreko ikasturteko irailaren 1etik abuztuaren 31ra bitarteari dagozkion fakturekin batera.



4. ERANSKINA

**IKASTURTE HONETAKO IRAILAREN 1ETIK ABUZTUAREN
31RA BITARTEKO JARDUEREN PROIEKTUA**

- Taldearen helburu orokorren ebaluazioa urtean zehar.
- Adin-talde bakoitzarentzat:
 - Azaldu jardueren urteko egitaraua, egutegia barne.
 - Helburuak.



5. ERANSKINA

IKASTURTE HONETAKO IRAILETIK ABUZTURA BITARTEKO AURREKONTUA**Diru-sarrerak**

	Euro
Entitatearen ekarpena	
Parte-hartzaileen kuotak	
Begiraleen kuotak	
Udalaren diru-laguntza	
Beste batzuk (zehaztu)	
OROTARA	

Gastuak

	Euro
Lokala mantentzeko gastuak (argia, alokairua, etab)	
Lokalean lanak egiteko gastuak	
Ekipamendurako gastuak (altzariak, ordenagailuak, erredizak, ikusentzunezkoak)	
Telefonia	
Aseguruak	
Formakuntza	
Kuotak eta harpidetzak	
Jarduerak (garraiobideak, materiala, aterpeak...)	
Beste batzuk	
OROTARA	

DIRU-SARRERA ETA GASTUEN ARTEKO ALDEA



6. ERANSKINA

ZIURTAGIRI EREDUA

..... jaun/andreak, elkartearen idazkaria delarik, ziurtatzen du aipatutako elkarteak bazkide zituela irailaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean eta bazkide bakoitzak euroko urteko kuota ordaintzen zuela.

Portugalete,

Vº Bº PRESIDENTEA
(jatorrizko izenpea)

IDAZKARIA,
(jatorrizko izenpea eta zigilua)

**7. ERANSKINA
FORMAKUNTZA IKASTAROAK**

Ikastaroa	Datak	Zenbat Lagun	Zenbatekoa (€)

Erantsi egitarauen, fakturen eta ziurtagiriaren fotokopiak edota dagokion egiaztagiria.



8. ERANSKINA
ZINPEKO AITORPENA

Elkarteko presidentea:

NAN:

Elkartea:

Elkartearen IFK:

Nik, elkarteko presidentea naizen aldetik, zin egiten dut elkarte hau ez dutela zigortu adminis-
tratiboki edo zigor-kodean, otsailaren 18ko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko
4/2005eko Legeari jarraiki, sexu-diskriminazioagatik edo Euskal Autonomia Erkidegoko administra-
zioaren diru-laguntzetarako beste deialdi batzuetan parte hartzeagatik.

Portugalete,



9. ERANSKINA / ANEXO 9

DATUEN ALTA EDO ALDAKETA / ALTA O MODIFICACIÓN DE DATOS

Pertsona edo entitate interesatuaren ezagupenerako datuak
Datos identificativos de la persona o entidad interesada

NAN / IFK

DNI / CIF

Abizenak eta Izena / Sozietaren izena

Apellidos y nombre / Razón social

.....

Datos Bancarios
Banku Datuak

Bankua / Banco

Sukurtsala / Sucursal

K.D. D.C.

K/Korrontea C/Corriente

Kontu korrontearen jabea / Titular de la cuenta

Sólo para cuentas corrientes en el extranjero // A rellenar por el banco
Atzerriko diru-kontuetarako soilik // Bankuak bete behar

IBAN

Interesatuaren adostasuna
Conformidad de la persona interesada

Bankuaren adostasuna
Conformidad del banco

Portugalete,

Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoa bete nahian jakinaratzen dizugu zeure datuak «Terceros Contabilidad» izeneko fitxategian sartu eta erabiliko ditugula. Fitxategi horren ardura Portugaleteko udalari dagokio eta udal kontularitza eta diru-sarreraren, gastuen, abalen eta fiantzen aurrekontua egiteko eta estatistikarako erabiltzen duela. Interesatuak datu horiek eskuratu, zuzendu, baliogabetu eta aurkatu ahal izango ditu Portugaleteko udaletxeko Erregistro Nagusian: Solar plaza z.g. 48920-Portugalete.

En cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le informa de que sus datos personales serán incorporados y tratados en el fichero «Terceros Contabilidad», del que es responsable el Ayuntamiento de Portugalete, cuya finalidad es realizar la contabilidad municipal y el presupuesto de ingresos, gastos, avales y fianzas y fines estadísticos. La persona interesada podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en el Registro General del Ayuntamiento: Plaza del Solar s/n, 48920-Portugalete.

PORTUGALETEKO UDALEKO DIRUZAINZTA
TESORERÍA DEL AYUNTAMIENTO DE PORTUGALETE



10. ERANSKINA

ZINPEKO EDO ARDURAPEKO AITORPENA

Elkarte Eskatzailea	
Izena	IFZ
Eskabidea sinatzen duenaren izen eta abizenak	NAN
Azalpena	
Goian aipaturiko elkarte eskatzailearen ordezkaria naizen aldetik, zin egiten dut agiriok aurkeztu direla, ez dela aldaketarik egin eta indarrean darraitela. Marka itzazu agiriak	
☐	Elkarte eskatzailea sortu zuteneko estatutuak edo eskritura.
☐	Elkarte eskatzailearen IFZren fotokopia.
☐	Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroko inskripzioaren fotokopia.
☐	Hartzekodunaren fitxa (9. eranskina)

Portugalete,



11. ERANSKINA

ZINPEKO AITORPENA

Elkarteko presidentea:

NAN:

Elkartea:

Elkartearen IFK:

Nik, elkarteko presidentea naizen aldetik, zin egiten dut hala elkarteko begirale guztiek nola elkarteko beste motatako langileek betetzen dutela Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistemaren Aldaketari buruzko 2015eko uztailaren 28ko 26/2015 Legearen 13. artikulua dakarrena.

Portugalete,